

## Xedapen Orokorrak

### INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4143

225/2010 DEKRETUA, abuztuaren 31ko, Uraren Euskal Agentziaren Erabiltzaileen Batzarraren funtzionamendu-erregimen eta osaketari buruzko Dekretua aldatzen duena.

Ekainaren 23ko 1/2006 Uren Legeak Erabiltzaileen Batzarra sortu zuen, Uraren Euskal Agentziaren parte hartzeko organo gisa, eta batzarraren osaera legea garatzeko arauaren bidez ezarriko dela dio.

Uraren Euskal Agentziaren Erabiltzaileen Batzarra arautzen duen abenduaren 4ko 220/2007 Dekretua, berriz, aipatutako arauzko garapena egiten du, eta Erabiltzaileen Batzarraren osaera, kideen izendapena, zereginak eta funtzionamendu-erregimena ezartzen ditu.

Horiek horrela, Dekretu horren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, Erabiltzaileen Batzarra ohiko bilkuratan elkartuko da, gutxienez urtean behin; eta edozein unetan bildu ahal izango da ezohiko bilkuran, bertako lehendakariak hala erabakitzenten badu edota kideen erdiek eskatzen badute.

Uraren Euskal Agentziaren Erabiltzaileen Batzarra arautzen duen abenduaren 4ko 220/2007 Dekretua aldatzeko justifikazioa organo hori partaidetzarako modu biziez hornitzea da, ekainaren 23ko 1/2006 Uren Legearen eginkizunak bete ditzan, zeregin horiek egun indarrean dagoen jarduteko erregimen estuarerin bateraezinak baitira. Ildo horretatik, Erabiltzaileen Batzarreko bilerei maiztasun handiagoa emateak lortu nahi den bizitasuna ekarriko liokeela hobetsi da; horrela, Erabiltzaileen Batzarra ohiko bilkuratan gutxienez urtean birritan elkartuko dela xedatu da.

Proposamen hori Erabiltzaileen Batzarrak aztertu du eta aho batez onetsi du ohiko bilerak gutxienez bi izatea, sei hilabetean behin. Horrez gain, ezohiko bilerak ere egingo dira.

Ondorioz, Ingurumen, Lurrarde Plangintza, Nezazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Ahokoa Batzorde Juridikoaren erabakiarekin bat etorriz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko abuztuaren 31n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

4143

DECRETO 225/2010, de 31 de agosto, de modificación del Decreto por el que se regula la composición y régimen de funcionamiento de la Asamblea de Usuarios de la Agencia Vasca del Agua.

La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, crea la Asamblea de Usuarios como órgano de participación de la Agencia Vasca del Agua, remitiendo a la norma de desarrollo reglamentario en cuanto a su composición.

Por su parte, el Decreto 220/2007, de 4 de diciembre, de la Asamblea de Usuarios de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua, aborda el citado desarrollo reglamentario, estableciendo la composición de la Asamblea de Usuarios, así como la designación de su miembros, funciones y, finalmente, su régimen de funcionamiento.

Así, dicho Decreto establece en su artículo 8 que la Asamblea de Usuarios se reunirá, de manera ordinaria, al menos una vez al año, pudiendo reunirse en cualquier momento, de manera extraordinaria, por decisión de la presidencia o a petición de la mitad de sus miembros.

La modificación del Decreto 220/2007, de 4 de diciembre, de la Asamblea de Usuarios de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua, se justifica por la necesidad de dotar a dicho órgano de métodos ágiles de participación, en aras de lograr un cumplimiento eficaz de las funciones que le atribuye la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, incompatibles con un régimen de funcionamiento tan limitado como el actualmente vigente. En tal sentido, se ha considerado que una mayor frecuencia de sus reuniones dotaría a la Asamblea de Usuarios de la pretendida agilidad, disponiendo así que la misma se reúna, de manera ordinaria, al menos dos veces al año.

Dicha propuesta ha sido debatida en el seno de la Asamblea de Usuarios, acordándose por la misma, con el respaldo unánime de todos sus miembros, que se establezca un mínimo de dos sesiones ordinarias, con periodicidad semestral, sin perjuicio de las que procedan con carácter extraordinario.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 31 de agosto de 2010,

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.**— Aldatu egin da Uraren Euskal Agentziaren Erabiltzaileen Batzarra arautzen duen abenduaren 4ko 220/2007 Dekretuko 8. artikuluko 1. idatz-zatia, eta honela idatzita geratu da:

«1.— Erabiltzaileen Batzarra ohiko bilkuratan elkartuko da gutxienez urtean birritan. Hala ere, Erabiltzaileen Batzarra edozein unetan bildu ahal izango da ezohiko bilkuran, bertako lehendakariak hala erabakitzten badu edota kideen erdiek eskatzen badute».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastián, 2010eko abuztuaren 31n.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,  
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

DISPONGO:

**Artículo único.**— Se modifica el apartado 1 del artículo 8 del Decreto 220/2007, de 4 de diciembre, de la Asamblea de Usuarios de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua, que queda redactado de la siguiente manera:

«1.— La Asamblea de Usuarios se reunirá, de manera ordinaria, al menos dos veces al año. En cualquier momento, la Asamblea de Usuarios de la Agencia puede reunirse de manera extraordinaria por decisión de la presidencia o a petición de la mitad de sus miembros».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 31 de agosto de 2010.

El Lehendakari,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Medio Ambiente,  
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.